



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BANDOA

Herritar guztioi jakinarazten dizuet 2011 urteko **Ura eta zabor tasetan hobariak** eskatzeko epea irekitzen dela eta **IRAILAREN 30a** bitartean, Larraulgo Udaletxean eskatzeko aukera izango dezuela, horretarako behean jasotzen dena bete beharko da:

HOBARI EDO BONIFIKAZIOAK

1.- URA ETA ZABAORRA TASA

a) **Bete beharreko baldintzak:**

- Hobaria zein etxetarako eskaten duten, horretaz gain ez dute beste ondasunik izango.
- Larraulgo Udalean inolako zorrik ez izatea.
- Elkarbizitza unitatearen hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 150.000 euro.
- Elkarbizitza unitatearen kide bakar batek ere ezin du izan 13,99 zaldi fiscal edo gehiagoko potentzia duen trakzio mekanikoko ibilgailu baten jabe (aruetan zehazten diren salbuespenekin).

b) **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

- Eskatzailearen Nazio Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Elkarbizitza unitateko kide guztiek jasotako urteko irabazien egiaztagiria, hau da, soldata, pensio edo bestelakoei dagozkienak. Ez dira onartuko bankuek egindako ziurtagiriak.
- Estatuko Enplegu Institutuak (orain LANBIDE) egindako ziurtagiria, prestazio ekonomikorik jasotzen ari den agertzen dena.
- Ikasten eta diru-laguntzaren gai den etxebizitzan bizi diren familia kideek beharrezko dute ikasle direnak egiaztatzen duen agiria ekartzea, eta 18 urtetik gorakoak, horrez gain, Lanbideko egiaztagiri bat ere bai, langabezian daudela dioena.
- Eskatzailea etxebizitzaren jabea bada, aurreko urteko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (Kontribuzioa) ordaindu duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar du; eta maizterra bada, jabearen izena eta bi abizen eman behar ditu.
- Famili kideen Foru Haziendak emandako ondasun ziurtagiriak.
- Hobaria jasotzeko kontu korrante zenbakia (20 zenbaki).

Larraulen, 2011 urteko irailaren 1ean
ALKATEAK